

# ERRENTERIATIK LEZORA OINAK BUSTI GABE

Joxe Anjel Etxeberria Sarasua

**J**akin nuenean Oarso aldizkarirako aurten proposatutako gaia “ibaiak eta errekek” izango zela bat-batean burura etorri zitzaidan aspaldi nire aita zenari, Fernandori, entzun nion pasarte bat.

Aita zenak kontatu zidan, bere gaztaroan, koadrilan aritu omen zirela, lagunen artean, Errenteriatik Errenteriara ibai edo errekarik gurutzatu gabe, mendi bideak erabiliaz, ibilbide bat josi nahian. Ez zen lan makala, jakina den moduan gure bailaran hemendik edo handik hasiagatik, beti agertzen delako erreka arrastoren bat. Aita Fernandok aditzera eman zidanez, erronka horretan arratsalde osoa pasa omen zuten eta oso gutxi falta izanagatik, ez omen zuten biderik osatzea lortu.

Memoriak ez badit tarte txarrik egiten, aita zenak kontatu zidan gisa hartan antolatu zuten bidea; baina, egia esanda, orduan ez nion atentzio gehiegirik jarri. Aurtengo Aste Santuan berari entzundako ibilbide hura egiten saiatu naiz. Aitortu behar dizuet nik ere ez dudala bide osoa egitea lortu. Azken errekek egin dit muga, Lezoko Zubitxo errekek utzi dit helburua guztiz burutu gabe.

Gaitz ere, Errenteriatik Lezora, Oiartzun bailarako mendi tontorretatik ibilita, oinak busti gabe eta zubirik erabili gabe, ibilbidea egitea lortu baitut. Neurri handi batean, nire buruari jarritako erronka gainditu dudalakotan naiz. Aitortu behar dizuet, gainera, ibilbide honek gure familiaren historiarekin elkartzen nauela. Aita zena Añabitarte baserrikoa zen, ama lezoarra, bere familiaren etxea, Juanaenea etxea, Zubitxo errekaaren ondoan zegoen eta ni neu, errenteriarra izatez, Oiartzungo bizilaguna naiz ezkondu nintzenetik. Beraz, nire

sustraiak lotu ditu Errenteriako herriko plaza eta Lezoko Santo Kristoren plaza elkartzen dituen ibilbide honek.

Ibilbide luzeena ere lehen pausorekin hasten da, nire lehen urratsa Errenteriako plazan eman nuen, eliza aurretik hartu, Txipitone eta eliza arteko meharretik pasatu, Eliza kalea egin, Amulleta etxe ondotik pasa eta Goiko kaletik gora, Torrekua eta Morrontxo dorretxeak albo bakoitzean hartuta, Agustinetako komenturaino iritsi nintzen. Hortik gora Zentoleneraino eta handik Zamalbidera.

Egon nintzen, bai, lehenago Añabitarte gure baserriaraino buelta ematekotan, baina azkenean erabaki nuen zuzenean Zamalbidera jotzea,



Jesús Hospitaler



Jaizkibetik Oartzungo bailara.



Bianditzetik Oartzungo bailara.



handik Perurenara aldera joateko. Utzi nuen Errenteriako Benta alde batera eta Astigarragako Benta (Perurena) bestera, eta hortik zuzenean jo nuen Frantxillagara.

Gora aldera berriro, Barrengoloia, Susperregi, Aldura. Irurita txabola, "irurita" hori hiru bidetatik hartu omen du; bada, hiru bide horien artean nik Zaria alderakoa hartu nuen. Kauso eta mairubaratzak pasata, Bunaniarri, Biandizko lepoa eta hango mairubaratzak zain nituen, ondoren Aritxulegiko lepora jaisteko.

Hemendik Elurrettxera bidea egin dai-teke, Aiako Harriaren hiru tontorrak gaindituz. Sekretutxo bat kontatu behar dizuet: nik errespetu handia diot Aiako Harriari eta hori horrela, nahiago izan nuen Arditurri aldetik gurutzatzen duen bidea hartzea. Lehor-lehor joateko, beste aukera dugu, hor da, markatua duzue. Nik egin nuen bidean bi edo hiru erreka arrasto gurutzatu nituen: Erroilbide erreka, Txurumurru erreka... Benetako bidea, beste da, beraz.

Elurretzetik aurrera bide erraxagoa da, hortik aurrera malda behera ere bai, baita Gaintxurizketarako gainera iritsi aurretik ere. Horretako lehendabizi Pikoketako ingurunea eta Gurutze pasa behar dituzue.

Gaintxurizketako gainera iritsita, gora bidea hartu behar da berriro, Jaizkibelgo tontorrera iristeko. Nire Lezoko lehengusuek honi ez liokete Jaizkibel deituko; beraientzat hori –Lezo aldera ematen duen mendia– Allerru da, Jaizkibel, haitz gibel, itsaso alderako mendiari esan izan diote. Allerru-Jaizkibel behin goia hartuta, hortik aurrera bidea leundu egiten da, Jaizkibel zeharkatu behar da, ia altura berean egiten da bidea. Zeharkaldia aldapa behera eginda Lezorako bidea hartuta amaitzen da.

Iritsi naiz Lezoko kaskora. Goitik sartuta, kale nagusitik behera egin dut, Lezoko Santo Kristoren basilika aurrean naiz. Errenteriako herriko plazan emandako urratsarekin hasitako bidea, ibai edo errekek zeharkatu gabe ibilbidea egitea xede zuena, hor amaitu zitzaidan. Behin Santo Kristoren plazan, Errenteriara joateko, Donibane kaletik hartuta edo Zubitxo kaletik hartuta, beti Zubitxo errekarerekin egingo dugu topo. Uztartu ditut Errenteria eta Lezo; baina ez dut lortu nik ere –nire aitak eta

bere lagunek lortu ez zuten bezala–, oinak busti gabe, txangoa Errenteriaraino egitea. Agian zuk, irakurle, lortuko duzu.

## Adierazgarri bezala, neurtutako datu batzuk:

Kilometroak: 42 km

Igotako altura 2.100 m  
denetara:

Ibilaldiaren 12 ordu (4 egunetan egin  
iraupena: da, eguneko 3 ordu ibilbide  
nagusian).

Eskerrak eman nahi dizkiot nire emazteari bere animo eta laguntza logistikoagatik: nire bila joan da ibilbide zati bakoitza amaitzen zen tokira, ondoren hasieran utzia nuen autoa errekueratzeko.

Oso ibilbide atsegina izan da; udaberria bete-bete harrapatu dut. Ibilaldiak behin altura pixka bat hartzen duenean ikuspegia zoragarriak eskaintzen ditu. Denbora guztian Gipuzkoa eta Lapurdi aurrez aurre dituzu: Ernio, Orioaldea, Donostia eta Urumea bailara, Pasaiako badia eta Oiartzungo bailara, Jaizkibel eta Txingudiko badia eta Lapurdiko kostaldea. Beste aldera begiratuta hor dituzu Bidasoa eta Malerreka aldeko Nafarroako mendi tontorrak eta urrunera Pirinioetako tontorrak, oraindik elurrez zurituta.

Ibilbidearen zati handi bat baso artean doa: pinudi, harizti, pagadi, gaztainondo, lizarrak eta abar. Nik egin nuenean, zuhaitzek udaberriko edertasuna erakutsi zidaten. Nola ahaztu bidean lagun izan ditudanak: katagorriak, zozoak eta gisa guztietako txoriak eta hegaztiak. Eta azkenik bide guztian alaitu ninduten kukuak: ku-ku, ku-ku!

Oarso aldizkarian aurkezten dizuedan ibilbide honek Urdaburu Mendi Elkarteak antolatzen duen mendi martxarekin antza handia du. Urdaburukoek, mendizale bikainak, egun bakar batean eta jarraian egiten dute. Bejondeiela! Hori da sasoia.

Espero dut nire aitak eta amak elkar ezagutu zutenean eta elkarrekin egoteko ez zutela bide hau erabiliko.